

1.- Proiektu honetan ikasleek II. ERREPUBLIKA garaian eman ziren aldaketan lantzea da nire helburu.

Eibarren kokatua dago ikastetxea eta Eibar Errepublika aldarrikatzen lehen herria izan zenik ere ez dakite askok, beraz, egoera horretatik abiatuko gara.

Ikasleei planteatuko die dan galdera da, *zergaitik emakumeei eskubide botoa eman ez baldin badakite erabiltzen?*

2.- Proiektua aurrera eramateko baliabide desberdinak erabiliko ditugu, ahozko iturriak, testu idatziak, bideoa...

- Errepublikaren aldarrikapena Eibarren bideoa . (25,15 minutu)  
[eibar.org/blogak/sarasua/1931ko-eibarko-errepublikaren-aldarrikapena-lekukoena-ahotan](http://eibar.org/blogak/sarasua/1931ko-eibarko-errepublikaren-aldarrikapena-lekukoena-ahotan)

- Ahotsak.com

- 1931.eko konstituzioa (36.art, 43.art, 48.art)

- Irakasleak egokitutako testu motzak: emakumeen eskubideak, joera politikoak,...

3.- Balizko proiektuak honakoak izan daitezke:

### 3.1. *Errepublikaren aldarrikapena EIBARen bideoa*

Bideo hau sarrerarako izango da. Denok batera ikusiko dugu. Beraiek Eibartarrak izanik lekuekin identifikatuko dira eta pertsonaren batzuk ere ezagutuko dituzte. Interesgarri edo ezezagun egin zaiena aipatzeko eskatuko zaie denei eta hortik abiatuko da proiektua.

### 3.2. *1931ko konstituzioa*

Testua izango dute ikasle guztiek. Batez ere 36. artikulua (boto eskubidea), 43.artikulua( dibortzioa) eta 48.artikulua(hezkuntza) landu beharko dituzte. Zer esan nahi du artikulua bakoitzak? Konstituzioaren aurretik nola zen? Nori reagiten dio bereziki aldaketak?...

### 3.3. [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com)

Talde bakoitzak konstituzioko artikulua bat aukeratu du. Aurrez landutakoak ez direnak izan daitezke, adib. elkartzeko askatasuna definitzen duena.

Artikulu horretan agertzen den gaiari lagungarri dakiokkeen grabazioa hartu beharko du, eta garaian hezkuntza, familia,... nolakoa zen kontatu beharko dute.

4.-

#### 4.1. Errepublikaren aldarrikapena EIBARen bideoa

Gelan ikusiko dugu eta ikasleei galdetuko zaie zer ez duten ulertu edo zer iruditu zaien interesgarri. Beraien galdera eta interesguneak sorteen bazaizkie, arbelean apuntatuko ditugu eta Hajeak landuko ditugu. HORrelakorik gertatzen ez bada honako galdera hauek erabili ditzakegu.

- *Alcala Zamora nor zen?*

- *Eibarren sozialistak, errepublikanuk ta PNV zauen.*

- *Pistola oparitu ziotenak, "El grupo femenino de la agrupación republicana de Eibar" ziren. Emakumeak politikan?*

- *"Beste mundu bat zabalduko zalako esperantzia"*

Ikasle bakoitzak gehien interesatzen zaion galdera jasoko du eta erantzuna ekarriko du.

#### 4.2. 1931ko konstituzioa

Testua irakasleak emango die eta talde kooperatiboetan landuko dute. "Sabioen taldea" dinamika erabiliz taldean aurkeztuko dituzte beren ondorioak eta amankomunean jarrito ditugu.

#### 4.3. [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com)

Ariketa hau ere talde kooperatiboetan egingo dute eta taldeko lan bezala entregatuko dute narrazioa.

5.- Proiektu hau egiteko 3 aste izango ditugu. Eta konponbide guztiak dira bideragarriak eta ezagutza helburua betetzen dutenak dira.

*6 eta 7 puntuak*

*Prozesu honek pauso desberdinak izango ditu.*

1) Sarrera: Bideoa ikusiko dugu gelan eta partehartzea sustatuko dugu. Ikasle bakoitzak, bideoak sortu dituen galdera desberdinetako bakoitzaren erantzuna ekarri beharko du, hurrengo klaserako.

2) Konstituzioa: Talde bakoitzak esan dugun moduan ekarpena egin behar dio ikasgelari.

3) talde bakoitzak, ahotsa.com eko informazioa erabiliz, lan idatzi bat entregatu beharko du. Testu idatzian agertu beharko du, nola antolatu diren, ikasle bakoitzak izan duen betebeharra, erabakiak hartzeko prozesua,...

4) Beste saio bat egingo dugu, orain arte ikasitako bateratzeko, eta taldeen aldaketa proposatuko da azken proiektua bideratzeko. Izan ere, taled bakoitzak gai batzuk landu ditu eta taldeak nahastean, beraien ezagutzak Elgar banatu ditzateke.

5) Azken ebaluaziorako lana: Aldizkari bat osatu behar dute, II errepublika garaian idatzitako notiziak bailiran:.

Talde bakoitzak nahi dituen beste notizia idatzi ditzake, eta gaiak desberdinak izan daitezke. Lan honetarako garrantzitsua izando da irakaslearen bideratzea. Aste bat izando dute lana burutzeko baino irakaslea eskuragarri izando dute denbora horretan edozein duda edo zailtasun sorteen bazaie.

- emakumearen botu eskubidea
- hezkuntza laikoa
- elizaren aldaketak
- Konstituzioaren aldarrikapena

- Eskoletatik gurutzeak kentzea
- ...